



### A.2.5. ARANE

#### A.2.5. ARANE

Azalera: 12.845 m<sup>2</sup>

#### I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak

Arane eta Urtzaile kaleak eta A.I. 109 01 Arane-Urtzaile Jarduketa Integratuaren mugapenaren artean geratzen den areak osatzen du eremu hau. Aurreko Jarduketa Isolatuaren eremu honetatik kanpo geratzen da, dagokion hirigintza fitxa duelako.

Honako ekintza hauek proposatzen dira, area honetako helburu partikular gisa:

\* "Aurrera" enpresa zaharreko instalazioen eremua berrordenatzea, bulego zaharrek osatzen duten izkinako eraikina sendotuz eta eraikin bloke berri bat eratuz, administrazio eta zerbitzuko erabilerearako. Bloke berri hau egitean bide berri bat ireki ahal izango da. Bide berri honetan oinarriturik, bere baitan etxebizitzak, aparkalekuak eta hirugarren sektoreko erabilpenak hartuko dituen eraikin bat kokatuko da, Arane Kalearen eta bide berriaren arteko malda gaindituz. Eraikin honen estalkian erabilera publikoko zorra ezarriko da, Arane Kaletik sarrera duena. Ekintza hau A.I. 109 01 Arane-Urtzaile Jarduketa Integratuaren bidez garatuko da, zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasota.

\* Arane Kalean (4, 6 eta 15 zenbakietan) dauden jarduera ekonomikoetarako eraikinak bermatzea, bizileku erabilpenarekin bateragarriak diren erabilbideak emanez.

\* Bide berri bat zabaltzea, Urtzaile eta Arane kaleen lotunetik hasi eta Bidebarrieta Kaleko 56-66. zenbakietako etxebizitzaren atzealdetik igaroz, Gisastu-Biden, Txonta Kalearen hasieraraino iritsiko dena. Bide berri hau A.I. 109 01 Arane-Urtzaile eta A.I. 125 Txonta Jarduketa Integratuen garapenaren bidez egingo da; horien zehaztapenak dagokien hirigintza fitxetan jasotzen dira.

\* "Jata" enpresa zaharren instalazioen ordez eraikitako bizitegi-eraikuntza finkatuta geratzen da

#### II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2A "Lerokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuen Erabilera produktiboa da: Hirigintza Arauen agiriko 8.3.09. Artikulua.- Erabilera produktiboa (8. erabilera).

#### III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.

Planeamendu Gehituko Eremu bat sartzen da eremu honetan, eta horri dagokion ordenazio xehatua dagokion garapen planeamendura egokitu beharko da:

API 13 ARANE-ASUA ERREKA, Arane Eremuari dagokion, 45.BJUaren XEHETASUNEZKO AZTERLANA

Azalera: 3.035 m<sup>2</sup>

Planeamendua:

\* Unitate etena hirilurrean, Arau Ordezkatzaileen aldekata puntual baten bidez sortua, 2001eko uztailaren 3ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuaren Kontseiluaren erabakiz behin betiko onespentza jaso eta 2001eko uztailaren 16ko GAOan argitaratu eman zena, 136. zenbakiko alean hain zuzen ere.